

# EZ EGON ISILIK!

2020-21 ikasturtea

- ▶ Badakizu Hizkuntza Eskolan irрати bat dagoela? Hamaseigarren denboraldia hastera goaz. Bai, orain inoiz baino gehiago. Anima zaitetz! Hurbil zaitetz estudiora eta grabatu.
- ▶ Ez kezkatu akatsen bat baldin badago, normala da. Hizkuntza bat ikastea, bidaia batean bezala, prestaketak helmugara iristea bezain garrantzitsuak dira. Nahi duguna zuk ongi pasatzea da. Aurretik, bitartean eta ondoren.
- ▶ Saioak Eskolan ikasturte honetan irakasten diren hizkuntzetan egiten ditugu: alemana, euskara, frantsesa, ingelesa eta italiara. Ziur horietako edozeinetan gauza interesgarriak esan ditzakezula. Edo bat baino gehiagotan!
- ▶ Gure estudioa Eskolako bigarren solairuan dago. Saio bikaina egiten lagunduko dizun talde teknikoa daukagu. Ez kezkatu okertzen bazara; berriro egin dezakezu. Ez da behar esatari-ahotsa edukitzerik edo irratian aditua izaterik. Teknikariak audioa editatu, eta izugarria utziko du, ikusiko duzu.
- ▶ Talde teknikoarekin harremanetan jar zaitetzke honen bidez: [eoip.raibabel@educacion.navarra.es](mailto:eoip.raibabel@educacion.navarra.es). Eskolak oso berandu (edo oso goiz) dituzu? Ez kezkatu: grabatzeko ordutegi zabala dago.
- ▶ Ziurrenik, irakasleek saioak taldetan egitea proposatu dizuete, hizkuntza praktikatzeko. Zer motatako saioak? Ikus dezagun...

- ▶ ... Elkarrizketak, debateak, maitasun-aholkularitza, umore saioak, igarkizunak, agenda, zure abesti edo pelikula gogokoenaren azalpena, bidaiatzeko gidak, ipuin kontaketa, ikasten ari zaren hizkuntzaren bitxikeriaren bat, sukaldaritza... Eta ziur zuri beste hainbat gauza bururatzen zaizkizula.
- ▶ Saioa atal finkoa ere izan daiteke. Zure saioa astelehenero agertzea nahi duzu? Astero maila bakoitzerako saio bat egin nahi duzu? Arazorik gabe.
- ▶ Behin grabatuta, saioa webgune honetan agertuko da: <https://raibabel.com/> Zure gurasoek ez ezik, Tonbuktun ere entzun zaitzaten lanean ari gara. Eman denbora.
- ▶ Ezin duzu itxaron? Azaroaren 9an hasiko da eta ez du etenik izango...

## RAIBABAELEHIAKETA

- ▶ Hain ongi eta hainbeste aldiz egingo duzu, non sari bat ere eramango baituzu. Ziur. Zure gelakideekin grabatu eta parte hartu.
- ▶ Zer lor dezakezu?  
100 €-ko txartel bat gehien parte hartzen duen taldearentzat.  
80 €-ko txartel bat atal finko onenarentzat.  
60 €-ko txartel bat hizkuntza bakoitzeko saio onenarentzat\*

(\*guztira 6 post gutxienez eta hilabetean 1 gutxienez)